

JANARI GUZTIEK ZAPORE ONA IZATEKO UKENDUA

Osagaiak:

- Zartagin handi bat (2metro·2metro).
- 2 litro olio.
- Fabrika bateko estoldako litro 1 ur.
- Amuarrain baten hezurak.
- Suge baten hortzen pozoia.
- Burusoil baten bi ile.
- Bi mililitro barre.
- Arratoi baten eskuetako hamar behatzak.

Egiteko modua:

Hilabete baten azken eguneko 23:59:59ean fabrika baten beheko estoldako litro 1 ur hartu eta zartaginera bota. Hurrengo orduan, Galiziako kostan, "Prestige"-a dagoen lekutik amuarrain hildako bat hartu eta hau ere zartaginera bota. Ondoren, eta ahalik eta azkarren, Amazonasera joan eta suge bati somnifero bat txertatu; honi bi hortz atera eta etxean pozoia zartaginera erortzea utzi. Hau bukatu ondoren, norbaiti Leperi buruzko txiste bat kontatzen barrez eginarazi; pote bat hartu eta bi mililitro barre hartu. Barrea sugearen pozoiarekin nahastu zartaginean.

Gure hurrengo pausoa arratoi bati eskuetako behatzak kentzea izango da. Behatz hauetako bat hartu eta jaten ari zaren momentuan burusoil bati bi ile kendu, eta batidora batekin likido bihurtu. Azken hau ere zartaginera bota, eta 2 olio litroak bota. Ondoren, zartagina gainean dagoela, sua "6" zenbakira jarri eta horrela 5 urte utzi.

Orain, zartaginak egosten duen janari guztiak zapore ona izango du.

Oharra: Janari guzti-guztientzat balio du.

Bigarren mailako efektuak:

- Janariak usain txarra har dezake.
- Prestatzen dutenen %0.01 itsu geratzen dira.